

TOXIKOMANIEI buruzko informazio sistema

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2010

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO

Toxikomaniei buruzko informazio sistema

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN **2010**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA**

Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntzako
Saiburuordetza
*Ezagutzaren Gestioa eta Ebaluazioa
Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO**

Viceconsejería de Calidad, Investigación
e Innovación Sanitaria
*Dirección de Gestión del Conocimiento y
Evaluación*

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Argitaraldia:

1.a, 2012ko urtarrila

Ale-kopurua:

80 ale

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Osasun eta Kontsumo Saila

Internet:

www.euskadi.net

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Zuzendaritza, koordinazioa eta elaborazioa:

N. Rodríguez-Sierra, M.I. Izarzugaza (info2-san@ej-gv.es)
Servicio de Registros e Información Sanitaria
Dirección de Gestión del Conocimiento y Evaluación
Departamento de Sanidad y Consumo

Diseinua eta maketazioa:

EkipoPO

Inprimaketa:

Eusko Jaurlaritzako Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua

L.G.:

VI 62-2012

Aurkibidea

7	SARRERA
9	MATERIALA ETA METODOAK
11	EMAITZAK
11	TRATAMENDU-ADIERAZLEA
24	LARRIALDI-ADIERAZLEA
31	HILKORTASUN-ADIERAZLEA
39	OHARRAK
41	BIBLIOGRAFIA
43	ESKERRAK
44	ERANSKINAK





1 Sarrera

droga-kontsumoak, Europan, Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiaren¹ azkeneko txostenaren arabera, badirudi nahiko egonkorra izaten jarraitzen duela, eta prebalentzia-mailek orokorrean nahiko goran jarraitzen badute ere, ez dira igotzen. Droga sintetikoaren merkatuaren bilakaera seinale kezkarriak ematen ari da, eta kontsumitzaileek geroz eta substantzia gehiago kontsumitzen dituzte. Politoxikomania bihurtu da, droga-kontsumoari dagokionez, eredu nagusi Europan, hau da, legez kanpoko drogak eta alkohola nahastea, eta zenbaitetan baita medikamentu edo arautu gabeko substantziak ere.

Kokainari dagokionez, beti egon da erlaziozaturik jende dirudunaren bizi-estiloekin eta modarekin, baina irudi hori hausten hasi da, jendeak geroz eta argiago duelako zer arazo sortzen dituen kokaina-kontsumoak, ospitale-urgentzia, heriotza eta tratamendu-eskaera geroz eta gehiago eragiten dituelako. Kokaina ohikotasunez kontsumitzeak dakarren kostu finantzarioak eragin dezake kontsumitzeko asmoa kentzea, eta lagundu, kontsumoa gutxitzen, batez ere, austeritate ekonomikoa eguneroko ogi bihurtu den herrialdeetan. Droga-mota horrek bere gailurra jo ahal izan duela erakusten dute Europako herrialdeetan bildu ditugun datu berriek. Orain gutxi egin diren inkestek adierazten dute kontsumoak behera egin duela zertxobait prebalentzia-zifra altuenak zituzten herrialdeetan.

Oraindik ere cannabisa da Europan gehien kontsumitzen den droga, baina kontsumo-prebalentziak egonkor jarraitzen du, edo beheranzko joera ere erakusten du.

EAEko kontsumoari dagokionez, EUSKADI ETA DROGAK² izeneko azkeneko inkestako datuek (2010ekoa da) legez kontrako droga-kontsumoen adierazleak nabarmen jaitsi direla adierazten dute, eta legezko substantzien kontsumoak bere horretan jarraitzen duela, baina beheranzko joera izanik, batez ere alkoholarekin erlaziozaturako adierazleak.

Droga-erabilera gehien intentsitateak ere behera egin duela nabarmentzen da; kontsumo-jarraibideak geroz eta esporadikoagoak dira eta intentsitate gutxiagokoak. Halaber, geldialdia izan du gizona eta emakumezkoen kontsumoen arteko aldeak gutxitzeak.

Bi urtean behin egiten den inkesta horren datuek (1992an hasi ziren inkesta egiten) adierazten dute gazte/helduek, eta pertsona nagusiek geroz eta pisu gehiago dutela kontsumitzaile guztiak kontuan hartuta, eta legez kontrako drogen kontsumoa geroz eta gutxiago dagoela loturik gaztaroarekin.

Euskadi eta Drogak 2010 txostenetik ateratako beste datu garrantzitsu bat da gazteek kalean egiten duten alkohol-kontsumoak bere horretan jarraitzen duela, eta oso loturik dagoela beste droga-kontsumo batzuekin, arrisku-portaera askorekin eta kontsumoaren ondoriozko geroz eta arazo gehiagorekin.

¹ Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokia. 2011. *Informe anual sobre el problema de la drogodependencia en la Unión Europea y en Noruega*. Luxenburgoko Europar Erkidegoen Argitalpen Ofizialen Bulegoa, 2011. www.emcdda.europa.eu

² Droga Gaietako Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila. *Euskadi eta Drogak 2010*. www.osanet.net

Txosten honetan ageri diren datuak Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistematik (SEIT) atera dira. Informazio-sistema hori 1987an jarri zen abian, Drogen Plan Nazionalaren barruan. Hasieran, opiazeoen eta kokaina-kontsumoen zeharkako adierazleetan zegoen oinarritua. 1996an, gainerako substantzia psikoaktiboak ere hasi ziren kontuan hartzen. 2003. urtean, halaber, beste aldaketa bat izan zuen eta Treatment Demand Indicator (TDI) izeneko Europako protokolo estandarrekin egin zuen bat.

Une honetan, SEITen adierazleak —beste adierazle batzuekin batera— Drogei buruzko Espainiako Behatokia (OED) sartuta daude, baita Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokia (OEDT) ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Osasun eta Kontsumo Sailaren bitartez, informazio-sistema horretan sartuta dauden adierazleen datuak bildu dira, definitzen joan diren heinean, eta arian-arian gertatutako aldaketak ere txertatu dira. Adierazle horiek Drogamenpekotasunen Euskal Behatokiaren barruan sartuta daude.

Hona hemen erabilitako adierazleak eta sartu diren aldaketak:

TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Helburu hau du: urte jakin batean, toxikomaniak tratatzeko zentroetan (Osakidetzakoetan zein sarearekin hitzartutako edo hitzartu gabeko zentro pribatuetan) substantzia psikoaktibo gehiegi kontsumitzeagatik eta horien mendekotasuna gainditzeko tratamenduari ekiten dioten pertsonen kopurua zein den jakitea.

LARRIALDI-ADIERAZLEA. Helburua: 15-54 urte bitartekoek substantzia edo droga psikoaktiboak hartu dituztelako ospitaleko zenbat larrialdi-gertakari izan dituzten jakitea.

HILKORTASUN-ADIERAZLEA. Helburua: gure erkidegoan 10-64 urte bitartekoek substantzia psikoaktiboak ez medikuak esanda eta nahita kontsumitzeagatik izandako kontrako erreakzio akutuaren ondorioz zenbat lagun hil diren jakitea.

2

Material eta metodoak

Informazioa biltzeko SEITek ezarritako protokoloari jarraitzen zaio; 1996an eta 2003an aldatu zen protokolo hori. Datuak adierazleen arabera biltzen dira.

TRATAMENDU-ADIERAZLEan datu-bilketa modu pasiboan egiten da. Zentroek anbulatorioan tratamendua onartzeko jakinarazpen-orriak Osasun eta Kontsumo Sailaren Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazioko Zuzendaritzaren Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzura bidaltzen dituzte; han, datuak egiaztatu eta akatsak zuzendu ondoren, prozesatu egiten dira, eta bikoiztuak ezabatu. Jakinarazpen-orri horietan honako datu hauek biltzen dira: alde batetik, datu soziodemografikoak (sexua, jaiotze-data eta -probintzia, bizi den udalerrria eta probintzia, nazionalitatea, heziketa-maila, lan-egoera, bizikidetzeta eta bizi izan den tokia); bestetik, drogen kontsumoari buruzkoak (tratamenduan onartzea eragiten duen droga nagusia —alkohola barne—, kontsumoaren maiztasuna tratamenduan onartu aurreko 30 egunetan, kontsumitzen hasitako urtea, aldez aurretik tratamenduren bat egin ote den, kontsumitzen diren bestelako drogak, hartzeko bidea eta egoera serologikoa GIBa dela eta)³; eta azkenik, erreferentzia-iturria.

Txosten honetan aurkezten diren emaitzak zentro eta instituzioek 2010. urtean egindako jakinarazpenetatik atera dira; 1. eranskinean bildu ditugu eta, guztira, 40 zentrotako datuak dira, Osakidetzakoak nahiz pribatuetaoak.

LARRIALDI-ADIERAZLEan, substantzia psikoaktiboak kontsumitu direla aipatzen duten larrialdi-gertakariak bilatzen dira. Bilaketa aktibo hori erregistro horretarako EAEn erreferentziatzen jo diren ospitaleetan egiten da, hain zuzen ere, Bizkaiko lurralde historikoko Gurutzetako, Basurtuko eta Galdakaoko ospitaleetan, eta 15-54 urte bitartekoen artean. OED behatokiarekiko koordinazioak, bestalde, gertakari horiek hilabete bakoitzeko zein astetan bilduko diren ezartzen du. Substantzia psikoaktibo guztiak hartzen dira, tabakoa eta alkohola izan ezik, bestelako substantzia psikoaktiboen⁴ kontsumoarekin erlazionatuta egon ezean.

2009an, bilaketa zuzenean egiten hasi zen, informatizatutako larrialdi-gertakarietan. Horrenbestez, informazio zehatzagoa bildu ahal izan da ordutik.

HILKORTASUN-ADIERAZLEA 1996. urteaz geroztik Euskal Autonomia Erkidegoko barruti judizial guztietan biltzen da, SEIT⁵ protokoloaren arabera. 2001. urtetik aurrera, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE) martxan jarri zenetik, heriotzen jakinarazpenak institutu horrek Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian dituen zuzendariordetzetako auzitegiko medikuen bitartez egiten dira, substantzia psikoaktiboekiko erreakzio akutuak eragindako heriotzaren auzitegiko diagnostikoa egin ondoren.

³Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) (2003). *Protocolo del Indicador Admisiones a Tratamiento por Consumo de Sustancias Psicoactivas*. Madril, 2002.

⁴Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) (2003). *Protocolo del Indicador Urgencias Hospitalarias Directamente Relacionadas con el Consumo de Sustancias Psicoactivas*. Madril, 2002.

⁵Toxikomaniei buruzko Estatuko Informazio Sistema (SEIT) (2003). *Protocolo del Indicador Mortalidad por Reacción Adversa Aguda a Sustancias Psicoactivas*. Madril, 2002.

Substantzia psikoaktiboekiko erreakzio akutuek eragindako hilkortasun-tasa espezifikoak kalkulatu dira 10-64 urte arteko 100.000 biztanleko, bai eta adinaren arabera estandarizatutako tasak ere, zuzeneko estandarizatzeko bidez; horren erreferentziazko populazio gisa Europako populazio estandarra erabili da.

Tasak kalkulatzeko EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea) zabalduko 2020ko biztanleriaren proiektzioak erabili dira. (Azkeneko aldaketa, 2011ko ekainaren 30ekoa da). Eskura daude www.eustat.es (2011ko azaroa).

3 Emaizak

Tratamendu-adierazlea


2010ean, 2.755 onarpen erregistratu ziren substantzia piskoaktiboen kontsumoagatik tratamenduan jartzeko. Horietatik % 82,6 gizonak ziren eta % 17,4 emakumeak. Tratamenduan jartzeko onartutakoetatik % 17 Arabako zentroetan, % 24 Gipuzkoako zentroetan eta kopururik handiena Bizkaikoetan (onarpenen % 59). Tratamenduan jartzeko onartutako guztietatik 2.681, EAEn bizi ziren. Pazienterik gehienak (% 84,9) Espainian jaiotakoak ziren; ondoren Marokon (90), Aljerian (39), eta Kolonbian (39) jaiotakoak daude, baita beste jatorri-herrialde batzuetan jaiotakoak ere. 2009koaren antzeko banaketa da.

1. grafikoan, tratamendu-onarpenen banaketa ikus daiteke, tratamendua eragin duen drogaren arabera. Ikus daitekeenez, alkohola da tratamendu-haste gehien eragin duena (1.089), guztien % 39,5; bigarren postuan kokaina dago (710 onarpen), hau da, onarpenen % 25,8, eta hirugarrenean heroína (423 onarpen), onarpenen % 15,4rekin. Horrenbestez, tratatutako pertsonarik gehienak alkohol-, kokaina- eta heroína-kontsumitzaileak dira, hiru droga horiek batuta tratamenduan onartutakoaren % 81 baitira.


2. grafikoan pazienteak droga nagusia kontsumitzen hasten direnean duten batez besteko adina ageri da, bai eta lehenengoz tratamenduan jartzen direnean duten batez besteko adina ere (kalkulua ateratzeko,

1.grafikoa TRATAMENDU-ADIERAZLEA.

Tratamendu onarpenak, tratamendu eragin duen drogaren arabera. EAE 2010



2.grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Batez besteko adina tratamendua hastean, eta batez besteko adina kontsumitzen hastean, droga nagusiaren arabera. EAE 2010



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioa eta Ebaluazio Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

lehenengoz tratamenduan onartutakoak soilik hartu dira kontuan, eta ez hurrengo tratamendua hasierak). Cannabis-kontsumitzaileak dira gazteen kontsumitzen hasten direnak, kontsumitzen hasteko batez besteko adina ia 16 urte baita. Kontsumitzen hasten denetik tratamenduan hasi bitartean pasatako denbora (latentzia-fasea) handiagoa da alkoholaren kasuan gainerako substantzietan baino.

1. taulan tratamenduan hasia onartutako pertsonen ezaugarriak zein diren ikusten da, tratamendua eragin duen drogaren arabera banatuta. Modu horretan, argi ikusten da ezaugarri soziodemografikoak eta kontsumo-ezaugarriak aldatu egiten direla droga-motaren arabera. Ikusten dugu gizonen ehuneko handiena cannabis eta kokainagatiko onarpenetan dagoela. % 73,8k 30 urte baino gehiago ditu. Ikasketa mailari dagokionez, ikasketa-maila baxuena dutenak dira heroina-kontsumoagatiko tratamendua hasten dutenak, aurreko urteetan bezalaxe. Eta ikasketa-maila altuenak dituztenak, berriz, alkohol-kontsumoagatiko tratamenduetara onartzen dituztenak. Lan-egoerari dagokionez, esan behar da, kasu guztiak kontuan hartuta, tratamenduan hasten direnen % 46,5 langabezian daudela. Ehuneko hori 2009koa baino handiagoa da, orduan % 42 baitziren langabezian zeudenak.

Aktibo dauden edo lanean ari diren pertsonen ehuneko handiena, bai lan-egoera mugagabeen edo aldi baterakoan, kokainagatik eta alkoholagatik tratamenduan hasten direnak dira, baina bi kasuetako batean ere ez dira droga horiek kontsumitzeagatik tratamenduan onartutako guztien % 50era iristen. Cannabisaren kasuan, ia % 22 ikasleak dira.

Tratamenduan hasiera onartutako gehienak (% 85,3) etxeetan, etxebizitzetan edo apartamentuetan bizi dira. Norekin bizi diren da aztertutako beste aldagai bat, eta eredu desberdina da droga nagusiaren arabera. Izan ere, alkoholaren kasuan, paziente gehienak bikotekide eta seme-alabekin bizi dira; anfetamina, kokaina, cannabis, heroina edo hipnolasaigarrien kasuan, aldiz, gurasoekin.

Jaiotza-herrialdeari dagokionez, gehienak espainiarrak dira. Cannabis- eta kokaina-kontsumoagatiko onarpenetan, % 10,2k eta % 8,5ek, hurrenez hurren, jatorri afrikarra dute. Heroinaren kasuan, % 6,9 Europako gainerako herrialdeetan jaiotakoak dira. 2009koaren antzeko banaketa da hau ere.

Erreferentzia-iturri nagusiari dagokionez, hau da, pertsona hori nola eta noren bidez iritsi den tratamendu-zentrori, ikusten da, alkoholaren kasuan, gehienak lehen mailako arretera-zerbitzuaren bidez iristen direla. Baina, heroina, anfetaminak, kokainaren eta cannabisaren kasuan, gehienetan beren

kabuz jotzen dute zentroetara. Cannabisari dagokionez, nabarmentzekoa da pazienteen %12 lege- edo polizia-zerbitzuetatik etortzen direla.

Aurretiaz tratamenduak eginda izatean eta ez izatean ere badira aldeak. Hala, nabari da heroinagatiko tratamendu-hasieretan, hamar kasutatik zortzitan aurretik tratamenduren bat egindakoak direla; cannabisaren kasuan, ordea, kasuen % 25,7k soilik egin zuen sustantzia berberagatiko tratamendurik aurrez. Gainerako substantzietan, ez dago hainbesteko alderik, kasu berrien eta tratamendua berriz egiten hasitako kasuen artean.

Droga nagusia kontsumitzen daramaten urte kopuruari dagokionez, berriz ere, drogaren arabera aldeak nabaritzen dira. Alkohola edo heroina kontsumitzeagatik tratamenduan hasten direnen kasuan, kontsumo-historia luzea izaten dute. Anfetaminak, kokaina edo cannabis kontsumitzeagatik tratamendua onartzen dituztenek, berriz, kontsumo-denbora gutxiago daramate.

Tratamenduan hasia eragin duen droga zer nolako maiztasunarekin kontsumitzen duten kontuan hartuta, antzematen da eguneroko kontsumoa dela nagusi, substantzia guztietan. Eredu hori aldatu egin da zertxobait aurreko urteen aldean; izan ere, kokainaren eta anfetaminaren kasuan, antzeko ehunekoa dute eguneroko kontsumoak eta aste bukaeratakoak. Dena den, azterketa egin den azken urte honetan, handiagoa da eguneroko kontsumoaren ehunekoa.

Tratamenduan onartu aurreko 30 egunetan droga nagusiaren kontsumo-maiztasunari buruzko datuak interpretatzeko garaian, ez dugu ahaztu behar tratamenduan hasi aurreko aldi hori atipikoa izan daitekeela eta agian ez dela gaixoaren ohiko kontsumo-maiztasunaren adierazgarri egokiena izango, zeren baliteke, tratamenduan hasi behar duelako-edo, pazienteak kontsumo-ohiturak aldatzen hasi izana, bere kabuz edo bestek aginduta. Beraz, ikusten da pazienteen %13k ez zuela drogarik kontsumitu, tratamenduari ekin aurreko 30 egunetan. Aurreko urtekoen antzeko ehunekoa da hori.

Hartzeko moduari dagokionez, adierazi behar da heroinaren kasuan gehienek birika-bidea/erretzea erabiltzen dutela (% 54,5k). Hamarretik hiruk baino ez du erabiltzen injekzioa droga hartzeko modu gisa. Kokainaren eta anfetaminaren kasuan, gehienek sudur barnetik hartzen dute.

2. taulan, 1994tik 2010era toxikomaniak direla-eta tratamenduan hasi direnen bilakaera ikusten da, tratamendua eragiten duen droga nagusiaren arabera —alkohola kanpoan utzita—. 1996. urtean erregistratu zen onarpen kopuru handiena, eta ikus daitekeenez, harrezkero, jaitsi egin da pixkanaka guztizko kopurua 2000. urtera arte; heroinak eragindako onarpenen jaitsieraren pare. Baina 2001etik aurrera, guztizko kopuruak berriz ere gora egiten du, batez ere, kokaina eta cannabisaren kontsumoagatik tratamendurako onartu direnen jakinarazpenek gora egin dutelako. 2005etik aurrera, berriz ere jaitsi egiten dira tratamendu-onarpenak, eta horrela jarraitzen dute 2006an eta 2007an ere, eta behera egin du pixkanaka kokaina-kontsumoagatik tratamendura onartutako kopuruak ere. 2008an, berriz ere gora egin zuen kasu-kopuruak, kokainagatiko eta heroinagatiko tratamendu-onarpen gehiago izan zelako, baina berriz ere behera egin zuten 2009an eta 2010ean, eta horrek onarpenen kopuru guztiak ere behera egitea ekarri du. Hala, aztertu den azken urte honetan 2003tik izan den tratamendu-onarpen txikiena izan da. Cannabis kontsumitzeagatik izandako onarpen-kasuak gehitu egin dira urtetik urtera, kasuak erregistratzen hasi zirenetik, eta bost aldiz bidertu dira 1996tik.

Azterketa hori egiteko, droga nagusi gisa jakinarazitakoa hartu da abiapuntutzat, baina aipatu behar da tratamenduan hasten den pertsona bakoitzak droga nagusiaz gain beste droga batzuk ere kontsumi ditzakeela; beste droga horiek honela jakinarazten dira: "tratamenduan onartu aurreko egunetan kontsumitutako bestelako drogak". 2010ean, tratamendua hasi zutenen ia erdiek (% 49,3k) gutxienez beste droga bat ere kontsumitzen zuen, % 21,3k, gutxienez, beste bi droga gehiago, eta % 7,6k, gutxienez, beste hiru edo gehiago. (Datu horiek ez dira taulan agertzen).

3. grafikoan, droga nagusiak direla eta tratamenduan hasitakoaren bilakaera ikusten da —alkohola aparte utzi da—. Ikusten da 2003. urtetik, EAEn, kokaina kontsumitzeagatik tratamenduan hasitakoaren kopuruak heroinagatik hasitakoaren kopurua gainditzen duela. Nabarmentzekoa da heroina-kontsumoa gutxitu egin dela etenik gabe 1996tik; 2008an erregistratu zela igoera txiki bat, baina berriz ere behera

1. taula. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Tratamendurako onartu dituzten pertsonen ezaugarriak, onarpen hori eragin duen drogaren arabera. EAE 2010

	Heroina	Anfetamin.	Koka.	Hipnotikoa eta lasaigarriak	Cannabisa	Alkohola	Hero+koka	Beste batzuk	Guztira	
Kopurua guztira	423	127	710	15	346	1089	6	39	2.755	
Batez besteko adina (urteak)	37	32,7	33,5	35,5	25,8	46,1	36,2	35,5	38,1	
	%	%	%	%	%	%	%	%	N	%
Sexua										
Gizonak	79,2	80,3	89	80	89,9	78,1	83,3	74,4	2.276	82,6
Emakumeak	20,8	19,7	11	20	10,1	21,9	16,7	25,6	479	17,4
Adin taldea										
10-14	0,0	0,0	0,0	0,0	0,9	0,0	0,0	0,0	3	0,1
15-19	2,8	1,6	3,0	6,7	25,1	1,0	16,7	7,7	138	5,0
20-24	5,9	14,2	10,0	13,3	28,3	2,7	0,0	12,8	248	9,0
25-29	11,8	15,0	20,4	20,0	17,6	4,1	16,7	15,4	330	12,0
30-34	14,7	27,6	24,5	6,7	12,7	9,3	0,0	7,7	420	15,2
35-39	25,1	24,4	18,3	26,7	6,4	12,5	33,3	12,8	436	15,8
40-44	19,6	13,4	13,9	13,3	5,8	14,0	16,7	20,5	383	13,9
45-49	15,4	2,4	7,3	0,0	2,3	17,7	0,0	15,4	327	11,9
50-54	3,1	1,6	1,8	6,7	0,9	15,2	16,7	7,7	202	7,3
55-59	1,2	0,0	0,4	0,0	0,0	11,2	0,0	0,0	130	4,7
60 edo gehiago	0,5	0,0	0,2	6,7	0,0	12,2	0,0	0,0	138	5,0
Ikasketak										
Ez daki irakurtzen, ezta idazten ere	0,5	0,8	1,1	0,0	0,0	0,4	0,0	0,0	15	0,5
Lehen Hezkuntza bukatu gabe	20,3	17,3	14,9	20,0	15,9	12,7	33,3	20,5	420	15,2
Lehen Hezkuntza bukatuta	25,8	17,3	22,7	13,3	21,7	32,2	33,3	25,6	732	26,6
Bigarren Hezkuntzaren 1. etapa, OHO, DBH, LH1 edo erdi-mailakoa	31,9	39,4	35,4	33,3	40,8	26,7	16,7	20,5	882	32,0
Bigarren Hezkuntzaren 2. etapa, LH2, BBB, UBI	11,3	18,9	17,6	20,0	14,7	15,9	16,7	15,4	431	15,6
Unibertsitateko erdi-mailako ikasketak	3,1	0,8	2,5	0,0	2,6	3,6	0,0	0,0	80	2,9
Unibertsitateko goi-mailako ikasketak	1,9	3,9	1,5	6,7	1,7	3,9	0,0	7,7	77	2,8
Beste batzuk	0,0	0,0	0,7	0,0	0,3	0,1	0,0	0,0	7	0,3
Ezezaguna	5,2	1,6	3,5	6,7	2,3	4,5	0,0	10,3	111	4,0
Lan-egoera										
Lan-harreman mugagabea edo autonoma	13,0	22,0	29,7	20,0	15,9	30,3	0,0	12,8	687	24,9
Aldi baterako lan-harremana	7,3	8,7	13,8	13,3	11,0	9,1	0,0	7,7	282	10,2
Soldatarik gabe, familiarentzako lanean	1,2	0,8	1,0	0,0	0,3	0,6	0,0	2,6	22	0,8
Langabea, aurretik lanik egin gabea	8,0	7,1	5,6	20,0	10,1	2,8	0,0	7,7	155	5,6
Langabea, aurretik lana eginda	50,8	46,5	36,9	40,0	30,6	34,3	50,0	53,8	1.046	38,0
Ezintasun iraunkorra duena, pentsioduna	10,4	3,9	3,1	6,7	2,3	13,9	16,7	7,7	235	8,5
Ikasten edo oposizioak egiten	0,7	3,1	2,0	0,0	21,7	1,0	16,7	0,0	108	3,9
Soilik etxeko lanak egiten	0,2	0,0	0,3	0,0	0,3	3,5	0,0	0,0	42	1,5
Beste egoera batean	5,0	6,3	4,2	0,0	4,0	2,9	0,0	2,6	106	3,8
Ezezaguna	3,3	1,6	3,4	0,0	3,8	1,5	16,7	5,1	72	2,6
Bizi-tokia										
Etxeak, etxebizitzak, apartamentuak	76,4	88,2	87,3	80,0	90,2	86,3	33,3	74,4	2.350	85,3
Espetxea, adingabeentzako barneratze-zentroa edo erreforma-zentroa	6,9	4,7	5,9	0,0	3,5	1,5	16,7	0,0	106	3,8
Beste erakunde batzuk	2,1	2,4	0,6	0,0	1,7	2,6	0,0	0,0	50	1,8
Pentsioak, hotelak eta ostatuak	2,4	0,8	1,7	13,3	0,3	2,5	0,0	2,6	54	2,0
Ostatu hartze ezegonkorra/behin- behinekoa	4,3	2,4	2,0	0,0	2,9	2,7	16,7	10,3	79	2,9
Beste lekuren bat	6,9	1,6	2,0	6,7	1,2	3,3	16,7	10,3	91	3,3
Ezezaguna	1,2	0,0	0,6	0,0	0,3	1,2	16,7	2,6	25	0,9
Bizikidetzak										
Bakarrik	22,2	15,0	15,1	26,7	11,3	22,9	33,3	12,8	519	18,8
Bikotekidearekin baino ez	14,2	11,0	11,4	0,0	6,6	14,4	16,7	5,1	338	12,3
Seme-alabekin baino ez	3,1	0,0	1,7	6,7	1,2	4,8	0,0	2,6	83	3,0
Bikotekidearekin eta seme- alabekin	11,6	8,7	18,3	6,7	8,1	26,3	0,0	10,3	509	18,5
Gurasoekin edo jatorrizko famiiliarekin	28,4	49,6	37,0	46,7	58,1	18,3	16,7	35,9	868	31,5
Lagunekin	4,5	6,3	5,2	13,3	5,2	3,3	0,0	15,4	126	4,6
Beste batzuk	12,8	8,7	10,3	0,0	8,4	7,1	16,7	10,3	249	9,0
Ezezaguna	3,3	0,8	1,0	0,0	1,2	3,0	16,7	7,7	63	2,3

(1 taulak jarraitzen du)


	Heroina	Anfetamin.	Koka.	Hipnotikoa eta lasaigarriak	Cannabisa	Alkohola	Hero+koka	Beste batzuk	Guztira	
Jaioterria										
Espainia	87,9	92,1	82,8	80,0	80,6	85,8	100,0	79,5	2.339	84,9
Europako gainerako herrialdeak	6,9	1,6	1,1	0,0	1,5	3,4	0,0	7,7	85	2,9
Afrika	2,0	3,9	8,5	20,0	10,2	4,4	0,0	7,7	163	5,7
Amerika	0,2	0,8	4,1	0,0	4,4	2,8	0,0	2,6	78	2,9
Asia	0,2	0,0	0,1	0,0	0,3	0,0	0,0	0,0	3	0,0
Ozeania	0,0	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1	0,0
Ezezaguna	2,4	1,6	1,4	0,0	2,0	1,9	0,0	2,6	51	1,9
Erreferentzia										
Droga-mendekotasunen beste zerbitzu bat	18,9	9,4	7,7	6,7	6,4	3,2	0,0	15,4	211	7,7
Mediku orokorra, osas. lehen mailako atentzioa	21,5	19,7	20,6	13,3	23,4	46,2	16,7	30,8	861	31,3
Ospitalea edo bestelako osasun-zerbitzuak	7,3	5,5	8,5	13,3	6,1	16,1	0,0	17,9	303	11,0
Gizarte-zerbitzuak	2,6	0,8	3,1	13,3	7,5	5,2	0,0	7,7	122	4,4
Espetxea, adingabeentzako barneratze-zentroa edo erreforma-zentroa	8,5	4,7	8,9	0,0	5,2	1,6	0,0	5,1	142	5,2
Lege-zerbitzuak edo polizia-zerbitzuak	2,1	9,4	3,5	6,7	11,6	1,3	16,7	0,0	102	3,7
Enpresa edo enplegu-emailea	0,2	0,0	0,1	0,0	0,0	0,2	0,0	0,0	4	0,1
Senideak edo lagunak	9,2	15	12,8	6,7	11,6	8,4	16,7	10,3	286	10,4
Norberaren ekimenez	27,4	27,6	32,1	40	24,6	16,3	50	12,8	655	23,8
Beste bat	0,9	7,1	2,3	0,0	3,5	1,3	0,0	0,0	55	2,0
Ezezaguna	1,2	0,8	0,4	0,0	0,3	0,4	0,0	0,0	14	0,5
Aldez aurreko tratamendua										
Bai	78,7	38,6	47,3	46,7	25,7	45,5	100	56,4	1.338	48,6
Ez	19,4	59,1	50	46,7	71,4	53,1	0,0	41	1.360	49,4
Ez dakigu	1,9	2,4	2,7	6,7	2,9	1,4	0,0	2,6	57	2,1
Kontsumo-denbora										
0-2 urte	10,9	6,3	9,2	13,3	8,4	3,3	16,7	15,4	193	7,0
3-5 urte	9,7	14,2	14,9	33,3	20,8	3,7	0,0	5,1	284	10,3
6-10 urte	12,3	19,7	29	20	28,6	6,2	0,0	33,3	466	16,9
10-15 urte	13,7	25,2	19,6	13,3	18,8	7,9	0,0	10,3	386	14,0
16-20 urte	17	18,1	14,1	6,7	9,8	10,7	16,7	5,1	350	12,7
21-25 urte	14,9	7,1	6,9	0,0	3,5	9,6	33,3	10,3	244	8,9
25 urte baino gehiago	16,8	2,4	3	0,0	4,9	38,7	16,7	7,7	537	19,5
Ezezaguna	4,7	7,1	3,4	13,3	5,2	19,8	16,7	12,8	295	10,7
Kontsumitze-maiztasuna										
Egunero	59,1	36,2	25,2	80	74,9	61,7	50	51,3	1.441	52,3
Astean 4-6 egun	6,1	12,6	14,2	6,7	5,8	7,3	0,0	7,7	246	8,9
Astean 2-3 egun	5,9	25,2	20,8	6,7	5,8	10,2	16,7	7,7	341	12,4
Astean egun 1	3,3	7,9	7,6	6,7	2,9	3,1	16,7	2,6	125	4,5
Astean egun 1 baino gutxiago	3,5	5,5	10	0,0	1,4	3,3	0,0	5,1	136	4,9
Ez zuen kontsumitu	17	11,8	17,6	0,0	6,1	10,7	16,7	20,5	359	13,0
Ezezaguna	5	0,8	4,5	0,0	3,2	3,7	0,0	5,1	107	3,9
Hartzeko bidea										
Ahotik	0,5	11	0,0	100	2,6	100	0,0	33,3	1.142	41,5
Biriketatik edo erreta	53,2	8,7	16,2	0,0	96,5	0,0	16,7	12,8	691	25,1
Sudur barnetik edo esnifatua	11,3	79,5	78,3	0,0	0,9	0,0	16,7	28,2	720	26,1
Parenterala edo injektatuta	27,9	0,8	2,3	0,0	0,0	0,0	66,7	20,5	147	5,3
Beste batzuk	1,2	0,0	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	6	0,2
Ezezaguna	5,9	0,0	3,1	0,0	0,0	0,0	0,0	5,1	49	1,8
GIB										
Positiboa	14,7	1,6	3,8	6,7	2,3	1	16,7	7,7	115	4,2
Negatiboa, azken 6 hilabeteetan analisia eginda	26,5	13,4	17,2	13,3	8,7	11,3	0,0	15,4	412	15,0
Negatiboa, azken 6 hilabeteetan analisirik egin gabe	26,7	22,8	16,9	13,3	9,2	11,8	33,3	12,8	432	15,7
Negatiboa, analisi-datarik zehaztu gabe	12,8	12,6	13,1	13,3	8,4	5,1	16,7	12,8	255	9,3
Analisia eginda, baina emaitzaren zain	0,9	2,4	1,4	0,0	1,7	0,7	0,0	0,0	31	1,1
Ez du analisirik egin	8	30,7	32,4	33,3	51,7	40,1	16,7	25,6	935	33,9
Ezezaguna	10,4	16,5	15,2	20	17,9	29,9	16,7	25,6	575	20,9
Guztira	100	100	100	100	100	100	100	100	2.755	100,0

2. taula. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Toxikomania ez alkoholikoengatik tratamendua hastea onartutakoen bilakaera*; tratamenduan hastea eragin duen drogaren arabera. EAE 1994-2010

	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010
HASITAKOEN KOP. GUZTIRA	1.135	1.375	2.058	1.886	1.652	1.494	1.408	1.432	1.443	1.728	1.894	1.818	1.701	1.671	1.804	1.671	1.666
DROGA NAGUSIA																	
Heroina	1.068	1.319	1.755	1.502	1.233	945	897	849	728	636	611	515	504	435	467	442	423
Kokaina	51	41	95	139	195	326	322	377	438	735	902	941	833	826	904	768	710
Anfetaminak	0	0	51	62	42	46	40	41	85	68	73	65	55	75	68	72	69
Speeda	0	0	28	51	50	53	32	19	44	55	62	52	61	65	75	66	58
Extasia	0	0	17	15	15	10	13	21	14	5	2	2	0	4	1	2	1
Hipnotikoak eta lasaigarriak	0	0	13	22	10	7	15	8	10	15	16	17	3	11	12	11	15
Haluzinogenoak	0	0	8	5	3	1	1	1	2	3	4	4	1	4	4	7	8
Cannabisa	0	0	68	68	84	90	73	106	115	150	177	183	189	208	235	269	346
Heroina+kokaina	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	25	23	17	15	6	9	6
Beste batzuk**	16	15	23	22	20	16	15	10	7	61	22	16	38	28	32	25	30

* 1996tik aurrera, beste substantzia psikoaktibo batzuek (heroina eta kokainaz gain) eragindako tratamendu-hasierak jakinarazteari ekin zitzaion
 ** Honako hauek bame hartzen ditu: "Bestelako opiazeoak", "Bestelako substantzia psikoaktiboak", "Bestelako estimulatzaileak" eta "Substantzia lurrunkorrak"
 Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioa eta Ebaluazio Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

3. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Heroína, kokaina eta cannabisaren tratamendurako onartutako bilakaera. EAE 1991-2010




Iturria: Tokikomaniari buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazio Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

egin zuela 2009an eta 2010ean. Kokainaren kasuan, nabarmentzen da 2005ean izan zuela gailurra, eta hurrengo urteetan egonkortu egin dela dirudiela, baita jaisten hasi ere, azken urteetan (2008an eta 2009an).

4., 5., 6. eta 7. grafikoetan, erregistratzen hasitako lehenengo urteetatik heroinagatik, kokainagatik, cannabisagatik eta alkoholagatik tratamenduan hasitako kopuruak EAEn izandako bilakaera ikusten da, aurretik beste tratamenduren bat eginda zuten edo ez kontuan hartuta, eta Espainiako datuekin alderatzen dira (**4.1, 5.1 eta 6.1 grafikoak**). Alkoholari dagokionez, ez da Espainiako informaziorik jaso, zenbait autonomia erkidegok ez duelako alkoholari buruzko daturik biltzen. EAEn, heroinari dagokionez, ikusten da tratamendua berriz hasteak gehiago izan direla lehenengo tratamendu-hasteak baino, eta antzeko ildoan izan da aztertutako urte guztietan. Horrek esan nahi du asistentzia-sarera sartzen diren kontsumitzaile berriak beti direla berriz ere kontsumora itzultzeagatik tratamendua hasten dutenenak baino gutxiago. Espainiako datuetan EAEn izandako bilakaeren antzekoak ikusten dira, batez ere, azken urteetan. Dena den, kokainaren kasuan, aldi osoan tratamendu-haste berriak berriz hasitakoak baino gehiago dira; dena den, aztertutako azken urtean ia parean daude. Espainian, EAEn izandako bilakaeraren antzekoa izan du kokaina-kontsumoak ere.


Cannabisari dagokionez, nabarmentzekoa da erabiltzaile "berrien" kopurua berriz ere kontsumora itzuli eta beste tratamendu bati ekiten diotenen kopurua baino askoz ere handiagoa dela, eta alde hori oraindik ere nabarmenagoa da aztertutako azken bi urteetan. Cannabisagatik lehenengoz tratatutako kopuruak nabarmen gora egin duela ikusten da, bai EAEn bai gainerako autonomia erkidegoetan. Alkoholaren kasuan aldeak daude tratamendurako lehenengoz onartutako kopuruaren eta berriz onartutako artean, eta bi ildo horiek bere horretan iraun dute azterketa-aldi osoan.

4. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Heroina gehiegi kontsumitzeagatik edo heroina-mendekotasuna izateagatik tratatutakoen bilakaera, aurretik tratamendua eginda duten edo ez kontuan hartuta. EAE 1991-2010




Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazio Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

4.1. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Espainian heroinaren abusu edo mendekotasunagatik tratatutakoen bilakaera 1991-2009




Iturria: DGPNSD. Observatorio Español sobre Drogas (OED). Tratamendu-adierazlea

5. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. **Kokaina** gehiegi kontsumitzeagatik edo kokaina-mendekotasuna izateagatik tratatutakoen bilakaera, aurretik tratamendua eginda duten edo ez kontuan hartuta. EAE 1991-2010




Iturria: Tokikomaniei buruzko Informazio Erregistroa, Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazio Zuzendaritza, Osasun eta Kontsumo Saila

5.1. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. **Espanian kokainaren** abusu edo mendekotasunagatik tratatutakoen bilakaera 1991-2009




Iturria: DGPNSD, Observatorio Español sobre Drogas (OED), Tratamendu-adierazlea

6. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Cannabis gehiegi kontsumitzeagatik edo cannabis-mendekotasuna izateagatik tratatutakoen bilakaera, aurretik tratamendua eginda duten edo ez kontuan hartuta. EAE 1996-2010




Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazio Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

6.1. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Espainian cannabisaren abusu edo mendekotasunagatik tratatutakoen bilakaera 1996-2009



Iturria: DGPNSD. Observatorio Español sobre Drogas (OED). Tratamendu-adierazlea

7. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Alcohol gehiegi kontsumitzeagatik edo alkohol-mendekotasuna izateagatik tratatutakoen bilakaera, aurretik tratamendua eginda duten edo ez kontuan hartuta. EAE 1996-2010



Iturria: Tokikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazio Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

ALKOHOLA

Alkoholagatiko onarpenen bolumenak duen garrantziagatik, zehatzago aztertu dira alkohola kontsumitzeagatik tratamenduari ekin dioten ezaugarri soziodemografikoak. **(3. taula).**

Taula horretan ikus daitekeenez, tratamendura onartutako 850 gizon eta 239 emakume erregistratu dira. Batez besteko adina — tratamendua hastean — 45,8 urte ingurukoa da gizonezkoen kasuan, eta 47,2koa emakumezkoen kasuan; hala ere, kontsumitzen hastean zuten batez besteko adina — aurreko urteetan bezalaxe — txikiagoa da gizonezkoen kasuan, 20,1 urterekin hasten baitira alkohola kontsumitzen, emakumezkoena baino, horiek ia 24,6 urterekin hasten baitira.

Bizkaiko zentroek erabiltzaileen % 60 baino gehiago artatzen dituzte, gizon eta emakumeak kontuan hartuta.

Or ohar, ikasketa-mailari dagokionez, ez dago alde handirik gizonen eta emakumeen artean, baina aurreko urteetan ere antzeman denez, unibertsitateko ikasle gehiago dago emakumeen artean (% 11,7) gizonen artean baino (% 7,4). Gizonen artean, gehiago ari dira lanean emakumeak baino, hau da, gizonen % 40,4 ari da lanean, eta emakumeen % 35,5. Langabetuei dagokienez ere, gehiago dira gizonak (% 38,6) emakumeak baino (% 32,2). Nabarmentzekoa da emakumeen % 15,5ek etxeko lanetan soilik jarduten duela.

Jaiotza-herrialdeari dagokionez, gehienak Espainian jaiotakoak dira (% 85,8). Atzerrian jaiotakoaren ehunekoaren artean gehiago dira gizonak emakumeak baino; hala, gizonen % 12,2 atzerrian jaiotakoak dira.

Bizikidetzari dagokionez, hau da norekin bizi diren, gehienak, bai gizonak bai emakumeak, bikotekidearekin eta seme-alabekin bizi dira; gizon gehiago bizi da bakarrik, eta bada alderik ere seme-alabekin bakarrik bizi diren artean; izan ere emakumeen % 13,8 hala bizi da, eta gizonen % 2,2, bakarrik. Bizikidetzan dauden alde horiek aurreko urteetan ere antzeman dira.

3. taula. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Alkoholaren kontsumoagatiko tratamendu-onarpenak. EAE 2010

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%
Kopurua guztira	850	239	1089	
Batez besteko adina tratamendua hastean (urteak)	45,8	47,2	46,1	
Batez besteko adina kontsumitzen hastean (urteak)	20,1	24,6	21,1	
Lurralde Historikoa				
Araba	16,2	18	181	16,6
Gipuzkoa	20,9	25,1	238	21,9
Bizkaia	62,8	56,9	670	61,5
Ikasketak				
Ez daki irakurtzen, ezta idazten ere	0,4	0,4	4	0,4
Lehen Hezkuntza bukatu gabe	13,6	9,2	138	12,7
Lehen Hezkuntza bukatuta	31,6	34,3	351	32,2
Bigarren Hezkuntzaren 1. etapa, OHO, DBH, LH1 edo erdi-mailakoa	27,1	25,5	291	26,7
Bigarren Hezkuntzaren 2. etapa, LH2, BBB, UBI	16,1	15,1	173	15,9
Unibertsitateko erdi-mailako ikasketak	2,6	7,1	39	3,6
Unibertsitateko goi-mailako ikasketak	3,8	4,6	43	3,9
Beste batzuk	0,1	0	1	0,1
Ezezaguna	4,7	3,8	49	4,5
Lan-egoera				
Lan-harreman mugagabea edo autonomia	31,6	25,5	330	30,3
Aldi baterako lan-harremana	8,8	10	99	9,1
Soldatarik gabe, familiarentzako lanean	0,4	1,7	7	0,6
Langabea, aurretik lanik egin gabea	2,8	2,9	31	2,8
Langabea, aurretik lana eginda habiendo trabajado antes	35,8	29,3	374	34,3
Ezintasun iraunkorra duena, pentsioduna	15,2	9,2	151	13,9
Ikasten edo oposizioak egiten	0,8	1,7	11	1
Soilik etxeko lanak egiten	0,1	15,5	38	3,5
Beste egoera batean	2,9	2,9	32	2,9
Ezezaguna	1,5	1,3	16	1,5
Jaioterria				
Espainia	84,9	88,7	934	85,8
Europako gainerako herrialdeak	3,6	1,2	35	3,3
Afrika	4,9	1,6	47	4,4
Latinoamerika	3,7	4,7	43	4
Ezezaguna	1,9	2,1	21	1,9
Bizikidetzatza				
Bakarrik	23,9	19,2	249	22,9
Bikotekidearekin baino ez	14,2	15,1	157	14,4
Seme-alabekin baino ez	2,2	13,8	52	4,8
Bikotekidearekin eta seme-alabekin	25,2	30,1	286	26,3
Gurasoekin edo jatorrizko familiarekin	19,6	13,4	199	18,3
Lagunekin	3,9	1,3	36	3,3
Beste batzuk	7,9	4,2	77	7,1
Ezezaguna	3,1	2,9	33	3

(3. taulak jarraitzen du)

	Gizonak	Emakumeak	Guztira	%
Erreferentzia-iturria				
Droga-mendekotasunen beste zerbitzu bat	3,2	3,3	35	3,2
Mediku orokorra, osas. lehen mailako atentzioa	47,5	41,4	503	46,2
Ospitalea edo bestelako osasun-zerbitzuak	15,4	18,4	175	16,1
Gizarte-zerbitzuak	5,8	3,3	57	5,2
Espetxea, adingabeentzako barneratze-zentroa edo erreforma-zentroa	2	0	17	1,6
Lege-zerbitzuak edo polizia-zerbitzuak	1,4	0,8	14	1,3
Enpresa edo enplegu-emailea	0,2	0	2	0,2
Senideak edo lagunak	7,6	10,9	91	8,4
Norberaren ekimenez	14,9	20,9	177	16,3
Beste bat	1,4	0,8	14	1,3
Ezezaguna	0,5	0	4	0,4
Aldez aurreko tratamendua				
Bai	46,4	42,7	496	45,5
Ez	52,6	54,8	578	53,1
Ezezaguna	1,1	2,5	15	1,4
Kontsumoaren maiztasuna				
Egunero	62,5	59	672	61,7
Astean 4-6 egun	6,4	10,5	79	7,3
Astean 2-3 egun	10,4	9,6	111	10,2
Astean egun 1	3,5	1,7	34	3,1
Astean egun 1 baino gutxiago	3,3	3,3	36	3,3
Ez zuen kontsumitu	10,4	12,1	117	10,7
Ezezaguna	3,6	3,8	40	3,7
Kontsumo-denbora				
0-2	2,7	5,4	36	3,3
3-5	2,9	6,3	40	3,7
6-10	5,5	8,8	68	6,2
11-15	7,3	10	86	7,9
16-20	11,8	7,1	117	10,7
21-25	9,1	11,7	105	9,6
25 eta +	40,2	33,1	421	38,7


Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazio Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila.

Erreferentzia-iturri nagusiari dagokionez, hau da, pertsona hori nola eta noren bidez iritsi den tratamendu-zentrora, alkoholaren kasuan lehen mailako arreta-zerbitzutik bideratuak dira gehienak, bai gizonak bai emakumeak.

Kasuen erdiak baino gehiagok, bai gizonetan bai emakumetan, ez du aurretik beste tratamendurik egin eta egunero kontsumitzen dute alkohola; hala ere, bai gizonetan (% 13,9) bai emakumetan (% 11,3) astean 1-3 egunetan kontsumitzen duten kasu asko erregistratu dira (asteburuetako kontsumoa).

Tratamendua hasi aurretik alkohola kontsumitzen daramaten denbora hartzen badugu kontuan, ikusten dugu gehienek 15 urte baino gehiago daramatela alkohola kontsumitzen; dena den, emakumeek, oro har, denbora gutxiago daramate gizonak baino (kontuan hartzekoa da, hala ere, aldagai horri "ezezaguna" erantzun diotela ia % 20ek).

8. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Alkoholagatik tratamendua jasotzea onartutakoen bilakaera, sexuaren arabera. EAE 1996-2010



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazio Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila

